- Zorra adierazten duten baloreak
 - Beste enpresa batzuen zorra adierazten duten balore eskuratuak: obligazioak, bonuak eta ordaindukoak, esaterako.
- Ondare tresnak:
 - Beste enpresa batzuen ondare tresna eskuratuak: akzioak, inbertsio kolektibo erakundeetako partaidetzak eta beste zenbait ondare tresna.

b) Finantza-pasiboak:

- Kreditu erakundeekiko zorrak:
 - Kreditu erakundeekiko zorrak.
- Obligazioak eta beste balore negoziagarri batzuk:
 - Obligazioak eta beste balore negoziagarri batzuk: bonuak eta zor-agiriak, esaterako.

- Eratorriak eta beste:
 - Merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak: hornitzaileak eta hartzekodunak.
 - Enpresarentzat kontrako balorazioa duten deribatuak: besteak beste, etorkizunekoak, aukerak, finantza-trukeak eta atzerriko dibisen epeko salerosketa.
 - Ezaugarri bereziko zorrak, eta
 - Beste finantza-pasibo batzuk: zorrak hirugarrengeokin, hala nola kreditu-erakunde ez diren pertsonengandik edo enpresengandik jasotako maileguak eta finantza-kredituak, horien barne aktibo ez-korronteak erostean sortuak, jasotako fidantzak eta deposituak eta hirugarrengeok partaidetzen gaineen eskatutako ordainketak.
- c) Sozietatearen ondarearen tresnak: funts berekien barruan sartutako finantza-tresna guztiak, hala nola jaulkitako ohiko akzioak.

4.3.1.- Epe luze eta motzeko finantza inbertsioak

- Maileguak eta kobratzeko kontuak: kostu amortizatuan erregistratzen dira. Maileguen kasuan, emandako eskudiruari dagokio, horri nagusiaren gainean egindako itzuliak kenduta eta kobratu gabeko interes sortuak gehituta. Kobratzeko kontuen kasuan, egindako ordainaren gaur egungo balioari dagokio. Sozietateak dagozkion hornidurak erregistratzen ditu berreskuratzeko duen zenbatekoaren eta liburuetan erregistratuta duten balioaren arteko aldearen arabera.
- Epemuga bitartean mantendutako inbertsioak: zorraren adierazgarri diren balioak, epemuga finkoa dutenak, merkatu aktibo batean negoziatzen diren eta Sozietateak epemuga iritsi arte gordetzeko asmoa eta gaitasuna duen zenbateko mugatuen edo muga daitezkeen kobrantza. Kostua amortizatzen denean kontabilizatzen dira.



- Inbertsioak taldeko enpresetan, enpresa elkartuetan edo enpresa taldeaniztunean.
 - Salmentarako libre dauden inbertsioak: aurreko lau kategoriatan sartzen ez diren gainerako inbertsioak. Kapitaleko finantza-inbertsioei dagokie ia erabat, % 20tik beherako inbertsioarekin. Inbertsio horiek erantsitako egoera-balantzean agertzen dira, arrazoizko balioarekin, baldin eta modu fidagarrian zehatz badaitezke. Kotizatu gabeko sozietateetako partaidetzei dagokienez, oro har, merkatuko balioa ezin da modu fidagarrian zehaztu, horregatik, hori gertatzen denean, erosketa-kostuaren arabera baloratzen dira edo, bestela, zenbateko txikiago baten arabera, gauza ziurra bada hiru hilabeteko epean baino gutxiagoan narria daitekeela.

4.3.2.- Finantza-pasiboak

Maileguak, obligazioak eta antzekoak jasotako zenbatekoaren arabera erregistratzen dira hasieran, transakzioan egindako kostuetatik garbi. Finantza-gastuak, kitapenean edo itzultzean ordaintzeko sariak eta transakzioaren kostuak barne, galeren eta irabazien kontuan kontabilizatzen dira, sortzapenaren irizpidearen arabera eta interes efektiboaren metodoa erabiliz.

Sortu den eta kitatu ez den zenbatekoa liburuetan tresnak duen zenbatekoari eranstean zaio, baldin eta ez badira sortutako aldian kitatzen.

Ordaindu beharreko kontuak merkatuko kostuaren arabera erregistratzen dira hasieran, eta ondoren, kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira, interes efektiboaren tasaren metodoa erabiliz.

4.4.- Epe luzerako periodifikazioak

Epe luzera kobratzeko kontuak kostu amortizatuan onartzetik eratorritako finantza interesak biltzen ditu. Interes horiek emaitzetan jasotzen joango dira, finantza irizpideen arabera.

4.5. - Izakinak

Partida hau Sozietateak emandako sariak osatzen dute, beren kostu prezioan baloratuta.



4.6. - Mozkinen gaineko zergak.

Zerga korronteen ondoriozko gastua zehazteko zerga korrontearen ondoriozko gastuari geroratutako zerga gehitzen zaio. Zerga korrontearen ondoriozko gastua zehazteko zerga-irabaziari indarrean den zerga-tipoa aplikatzen zaio, eta era horretara lortutako emaitza murriztu egiten da hobari eta kenkari orokorren eta ekitaldian aplikatuetan zenbatekoan.

Geroratutako zergen aktiboak eta pasiboak etorkizunean berreskuragarri eta ordaingarri diren zenbateko gisa definitutako aldi baterako desberdintasunetatik datoz, eta aktiboen zein pasiboen liburuetan duten balioaren desberdintasunaren eta beren zerga-oinarriaren artetik eratorriak dira. Zenbateko horiek erregistratzeko, berreskuratzea edota kitatzea espero den karga tasa aplikatzen zaio aldi baterako desberdintasunari.

Geroratutako zergengatiko pasiboa aldi baterako diferentzia-oinarri guztietarako aintzatesten da, nola eta aldi baterako ezberdintasuna ez den merkataritza funts baten hasierako aintzatespenetik edota hasierako aintzatespenetik deribatua, beste aktibo eta pasibo batzuen negozio konbinazioa ez den transakzio batean egiteko garaian zerga edota kontabilitate emaitzari eragiten ez dion eragiketa batean.

Bestalde, geroratutako zergengatiko aktiboak, aldi baterako desberdintasun kengarriekin identifikaturik, aintzatetsiko dira baldin eta pentsatzekoa bada elkarrekin etorkizunean zerga-irabazi nahikoak izango dituela haien kontra efektibo egiteko, eta ez badira beste aktibo eta pasibo batzuen hasierako aintzatespenetik sortuak negozio-konbinazioa ez den eragiketa batean, eta ez badio eragiten zerga-emaitzari edota kontabilitate-emaitzari. Geroratutako zergengatiko gainerako aktiboak (zerga-oinarri negatiboak edota konpentsatzeke dauden kenkariak) aintzatetsiko dira, baldin eta pentsatzekoa bada elkarrekin etorkizunean efektiboak egiteko beste zerga-irabazi edukiko dituela etorkizunean.

Kontabilitate amaiera bakoitzean erregistratutako geroratutako zergak berrikusten dira (bai aktiboak, bai pasiboak), indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko; hala, egin beharreko zuzenketak egingo zaizkie, lortutako analisien emaitzekin bat.

Geroratutako zergaren gastua edota sarrera geroratutako zergengatiko pasiboen eta aktiboen aintzatespenarekin edota ezeztatzearekin bat dator, bai eta, hala badagokio, diru-laguntza gisa har daitezkeen kenkariak eta bestelako zerga-abantailak kontabilizatzearen ondorioz sor litezkeen ondare garbiari zuzenean egotzitako sarreraren galera eta irabazien kontura aintzatesteagatik eta inputatzeagatik ere.



4.7.- Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak irabazkinaren irizpidearen arabera egozten dira, horien ondoriozko moneta- edo finantza-korrontea zer unetan gertatzen den kontuan hartu gabe.

Edonola ere, Sozietateak ekitaldiaren itxiera-datan lortutako etekinak baino ez ditu kontabilizatzen, eta aurrez ikus daitezkeen arriskuak eta galerak, behin behinekoak izanda ere, ezagutu bezain pronto kontabilizatzen dira.

Ondasunen edo zerbitzuen salmentaren ondoriozko diru-sarrerak horien ondorioz jaso den edo jasoko den ordainaren arrazoizko balioaren arabera ezagutzen dira. Goiz ordaintzearen ondoriozko beherapenak, bolumenaren ondoriozkoak edo bestelakoak, eta kredituen nominalari erantsitako interesak, horien murriztapen gisa erregistratzen dira. Halere, Sozietateak eranstean dituzten urtebetetik gorako epemuga ez duten eta kontratuzko interesik ez duten merkataritza-kredituei erantsitako interesak, baldin eta eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa ez bada adierazgarria.

Bezeroei onartutako beherapenak salmenten ondoriozko diru-sarreen beherapentzat hartzen dira, onespena erabakitzen duten baldintzak beteko direla probablea den unean.

Etorkizuneko salmenten ondorioz kontura egiten diren aurrerapenak jasotako balioaren arabera baloratuta agertzen dira.

4.8.- Hornidurak eta kontingentziak

Egoera-balantzearen datan dauden obligazioak, iragandako gertakarien ondorio direnak, sozietateari ondare-kalteak eragin diezazkieketenak eta zenbateko jakinik edota kitatzeko une jakinik ez dutenak, obligazioa kitatzeko sozietateak ziurrenik ordaindu beharko duen zenbatekoaren uneko balioa izango duten hornidura gisa erregistratzen dira egoera-balantzean.

Obligazioa kitatzeko unean hirugarren batengandik jasotzeko konpentsazioak ez du berekin ekarriko zorraren zenbatekoa murriztea, nahiz eta sozietatearen aktiboan dagokion kobratzeko eskubidea aitortu, betiere ez bada zalantzarik ordainketa hori jasotzeko aukeraren inguruan, aktibo hori erregistratzerakoan zenbatekoa ez da izango kontabilitatean erregistratutako obligazioa baino handiagoa.

4.9.- Transakzioak lotura duten alderdiekin

Lotura duten alderdien artean egindako transakzioak (Sozietatea eta Akziodunak) bere kostu-balioan kontabilizatu dira.



5. OHARRA.- IBILGETU MATERIALA ETA UKIEZINA.-

Agiri honi erantsitako egoera-balantzearen kapitulu honetan izandako mugimendua honako hau da:

	Ibilgetu ukiezina	Ibilgetu materiala	Guztira
HASIERAKO SALDO GORDINA, 2023ko EKITALDIA	193.220,40	842.309,19	1.035.529,59
(+) Sarrerak	-	-	-
(-) Irteerak	-	(1.340,00)	(1.340,00)
AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2023ko EKITALDIA	193.220,40	840.969,19	1.034.189,59
AMORTIZAZIO METATUA, 2023ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	193.220,40	791.967,15	985.187,55
(+) Amortizazioa 2023	-	17.516,56	17.516,56
(-) Murrizketak irteerak, bajengatik, gutxitze edo intsuldaketengatik	-	(1.340,00)	(1.340,00)
AMORTIZAZIO METATUA, 2023ko EKITALDIKO BUKAERAKO SALDOA	193.220,40	808.143,71	1.001.364,11
GARBIA 2023-12-31n	-	32.825,48	32.825,48
HASIERAKO SALDO GORDINA, 2024ko EKITALDIA	193.220,40	840.969,19	1.034.189,59
(+) Sarrerak	-	-	-
(-) Irteerak	-	-	-
AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2024ko EKITALDIA	193.220,40	840.969,19	1.034.189,59
AMORTIZAZIO METATUA, 2024ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	193.220,40	808.143,71	1.001.364,11
(+) Amortizazioa 2024	-	17.516,56	17.516,56
(-) Murrizketak irteerak, bajengatik, gutxitze edo intsuldaketengatik	-	-	-
AMORTIZAZIO METATUA, 2024ko EKITALDIKO BUKAERAKO SALDOA	193.220,40	825.660,27	1.018.880,67
GARBIA 2024-12-31n	-	15.308,92	15.308,92

Sozietatearen politika da bere ibilgetu materiala osatzen duten osagaiek izan ditzaketen arriskuak babesteko aseguru-polizak formalizatzea.

**6. OHARRA.- FINANTZA-AKTIBOAK.-**

TARTEKIA: (Administrazio publikoekiko zordunketak EZ dira islatzen paragrafo honetan)

6.1.- Finantza-aktiboen balioa**6.1.1.- Epe luzerako finantza-aktiboak**

Sozietatearen balantzearen **aktiboaren** finantza-tresnei buruzko informazioa, **epe luzera**, honako hau da kategorien arabera sailkatuta:

KATEGORIAK		MOTAK					
		Zorra adierazten duten baloreak		Kredituak, deribatuak eta Bestelakoak		GUZTIRA	
		2024ek.	2023ek.	2024ek.	2023ek.	2024ek.	2023ek.
	Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	128.033,98	192.970,24	7.557,21	7.273,24	135.591,19	200.243,48
	GUZTIRA	128.033,98	192.970,24	7.557,21	7.273,24	135.591,19	200.243,48

2024ko urtean egon diren epe luzerako finantza aktiboen mugimenduak, finantza aktiboen kategoria barruan sailkatuta eta amortizatu kostera honako hauek dira:

	Saldoa 2023.12.31	Altak	Bajak	Emaitzara intsuldaketa	Kantzelazioa edo intsuldaketa epe motzera	Saldoa 2024.12.31
Epe luzerako ezarpenak	192.970,24	-	(64.936,26)	-	-	128.033,98
Kredituak epe luzera	-	-	-	-	-	-
Periodifikazioak epe luzera	-	-	-	-	-	-
Epe luzera osatutako fidantzak	7.273,24	883,97	(600,00)	-	-	7.557,21
GUZTIRA	200.243,48	883,97	(65.536,26)	-	-	135.591,19

a) Zorren balio adierazgarriak

Zorren balore adierazgarri guztiak KUTXABANKEk pignoratu epe luzerako ezarpen bati dagokio, behin *Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari* itzuli beharreko maileguaren saldoa likidatu ondoren eta abalaren kitapena aurkeztu arte. Gertakari hau, 2025 urtarrilaren 28an gauzatu da eta pignorazioa ezeztatua izan da.

**b) Kredituak, deribatuak eta bestelakoak**

Kategoria honetan sartutako saldoa, epe luzera sortutako fidantzaz osatuta dago.

6.1.2.- Epe laburreko finantza-aktiboak

Sozietatearen balantzearen **aktiboaren** finantza-tresnei buruzko informazioa, **epe laburrera**, eskudirua eta beste aktibo baliagarri batzuk kontuan hartu gabe, honako hau da, eurotan eta kategorien arabera sailkatuta:

KATEGORIAK		MOTAK			
		Kredituak, Deribatuak eta Bestelakoak		GUZTIRA	
		2024ek.	2023ek.	2024ek.	2023ek.
	Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	756.907,12	835.106,09	756.907,12	835.106,09
	GUZTIRA	756.907,12	835.106,09	756.907,12	835.106,09

Kreditu deribatuak eta beste kategorian sartutako saldoa interes-tasarik sortzen ez duten merkataritza-eragiketen ondorioz bezeroekin izandako saldoi dagokio batez ere, eta nominalean baloratzen dira.

6.2.- Maileguaren arriskuak sortu duen balio-galeren zuzenketa

Maileguaren arriskuak sortutako balio-galera adierazten duten kontu zuzentzaileen mugimenduaren azterketa ondokoa da:

	Maileguak, eratorriak eta beste batzuk (1)
	Epe motzekoa
2023ko ekitaldiaren bukaerako balio-murritzketaren ondoriozko galera	45.787,51
(+) Narriaduragatiko balorazio-zuzenketa (10.2 oharra)	-
(-) Irteerak eta murritzketak	-
2023ko ekitaldiaren bukaerako balio-murritzketaren ondoriozko galera	45.787,51

(1) Narriduragatiko balorazio-zuzenketak kreditu arriskuarengatik barne "Zordun komertzialak eta beste kontu batzuk kobratzera"



7. OHARRA.- FINANTZA-PASIBOAK.-

TARTEKIA: (Administrazio publikoekiko zordunketak EZ dira islatzen paragrafo honetan)

7.1.- Epe motzera

2024ko abenduaren 31n egon diren balantzeko **pasiboaren epe motzerako** finantza tresnak, kategoriaren arabera sailkatuta honako hauek dira:

KATEGORIAK		MOTAK					
		Kreditu erakundeekiko zorrak		Deribatuak eta Bestelakoak		GUZTIRA	
		2024ek.	2023ek.	2024ek.	2023ek.	2024ek.	2023ek.
	Finantza Pasioak kostu amortizatuan	303.374,13	580.846,17	556.467,19	512.153,47	859.841,32	1.092.999,64
	GUZTIRA	303.374,13	580.846,17	556.467,19	512.153,47	859.841,32	1.092.999,64

Kreditu-erakundeekin dauden zorrak kategoriaren saldoa, nagusiki, honi dagokio:

- 300.000,00 euroko saldo erabilitako kreditu-kontua.

Eratorkiak eta bestelakoak kategoriaren barruan sartzen dira nagusiki:

- Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko beste kontu batzuk epigrafean jasotako saldo guztiak, urtebetetik gorako epemuga ez dutenak, interesik sortzen ez dutenak eta nominalean balioztatzen direnak.



8. OHARRA.- FUNTS BEREKIAK.-

Kapital soziala, 2024ko abenduaren 31n, hamar mila akzio nominatiboz dago osatuta, horietako bakoitzaren balio nominala 24,28 eurokoa izanik, batetik hamar milara arte daude zenbakituta, biak barne, eta bere osotasunean daude ordainduta.

2024ko abenduaren 31n, Sozietateko akziodunak honako hauek ziren:

AKZIODUNAK	EHUNEKOAK
Zinematografia eta ikus-entzunezko Arteen Institutoa	25 %
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa	25 %
Gipuzkoako Foru Aldundia	25 %
Donostiako Udala	25 %

▪ **Lege-erreserba:**

Kapital Sozietateen Legearen 274. artikuluaaren arabera, sozietateak behartuta daude zergak aplikatu osteko irabazien % 10 legezko erreserbako funts bat osatzera bideratzera, funts hori, gutxienez, kapital osoaren % 20 izatera iritsi arte.

Legezko erreserba hori, adierazitako muga gainditzen ez duen bitartean, galerak konpentsatzera baino ezingo da bideratu, baldin eta helburu horretarako beste erreserba erabilgarri nahikorik ez badago.

2007ko abenduak 31rako legez lege erreserbarako finkatutako kopurua osatuta zegoen.

▪ **Beste erreserbak:**

Borondatezko erreserbak dira, aukerazkoak.

▪ **Kapitala berrizendatzeko erreserbak:**

Erreserba erabiltezinak dira, akzioak eurotara bihurtzen akzio nominalaren bi dezimalekora egokitu behar izanaren ondorioz.

**9. OHARRA.- EGOERA FISKALA.-****9.1.-Administrazio Publikoekin dituzten saldoak****9.1.1.- Saldo zordunak**

Hauek dira administrazio publikoekin dituzten saldo zordunak:

	2024ek	2023ek
ZORDUNA	401.895,51	302.777,45 €
OP, BEZagatik zordun	399.038,91	297.824,04
OP, atxikipenengatik zordun	–	1.469,32
OP, Sozietate zergatik zordun	2.769,80	–
Gizarte Segurantzako erakundea	86,80	3.484,09

9.1.2.- Saldo hartzekodunak

Hauek dira administrazio publikoekin dituzten saldo hartzekodunak:

	2024ek	2023ek
HARTZEKODUNA	250.237,64	233.004,78
OP, PFEZagatik hartzekodun	167.439,94	158.964,74
Gizarte Segurantzako erakundeak	82.797,70	74.040,04

9.2.- Zerga atzeratzeagatiko pasiboak

2024. urtean bere mugimendua honako hau izan da:

	2024ek.	2023ek.
SALDOA EKITALDIAREN HASIERAN	–	1.806,50
(-) Intsuldaketak emaitzetara	–	(1.200,38)
(-) Reklasifikazioa epe motzera	–	(606,12)
SALDOA EKITALDIAREN AMAIERAN	–	–



9.3.- Irabazien gaineko zergak

Hau da 2024ko ekitaldiko sarreraren eta gastuen zenbateko garbiaren eta irabazien gaineko zergaren zerga-oinarriaren arteko adostasuna:

Gastu eta diru sarreraren saldua zerga aurretik	1.682,00
Diferentzi iraunkorrak	13.748,08
Aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa	-
_ jatorria aurreko ekitaldietan	(10.801,05)
Zerga-onarria (zerga-emaiza)	4.629,03

Sozietateen gaineko zergaren aurreikuspenari dagokionez, honako kalkulu hauek egin dira:

	SORTUTAKOA
Kuota (20%)	
S/Emaiza Fiskala	925,81
Kenkariak:	
35%ko mugarekin	(282,59)
TicketBAI	(41,44)
MOZKINEN GAINEKO ZERGA GUZTIRA	601,78
Atxikipenak	(3.371,58)
G U Z T I R A	(2.769,80)

Hau da 2023ko ekitaldiko sarreraren eta gastuen zenbateko garbiaren eta irabazien gaineko zergaren zerga-oinarriaren arteko adostasuna:

Gastu eta diru sarreraren saldua zerga aurretik	1.565,73
Diferentzi iraunkorrak	11.929,29
Aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa	
_ jatorria aurreko ekitaldietan	(9.446,51)
Zerga-onarria (zerga-emaiza)	4.048,51



Sozietateen gaineko zergaren aurreikuspenari dagokionez, honako kalkulu hauek izan dira:

SORTUTAKOA	
Kuota (20%)	
S/Emaizta Fiskala	809,70
Kenkariak:	
35%ko mugarekin	(809,70)
MOZKINEN GAINKO ZERGA GUZTIRA	-
Atxikipenak	-
G U Z T I R A	-

Honekin batera doan balantzean, sozietateak ez du erregistratu aldi baterako alde kengarriei, zerga-oinarri negatiboari eta beste zerga-kreditu batzuei dagokien zerga geroratuaren ondoriozko aktiboa.

Itxieran zerga oinarri negatiboa duten kredituen antzintasuna eta berreskuratze fiskalerako gehieneko epea hau da:

Ekitaldia	Kopurua	Azken urtea
2007	240.487,21	2037
2008	337.534,20	2038
Guztira	578.021,41	

Hurrengo ekitaldietan kenketak egin behar zaizkien **pizgarri fiskal mugatuen** zenbatekoa hau da:

Ekitaldia	Pizgarria aplikatzeko
2007	26.434,16
2008	13.739,40
2010	27.192,70
2011	9.200,00
2012	1.566,56
2014	5.440,00
2015	21.247,13
2016	5.449,00
2017	566,82
2018	720,00
2019	729,00
2020	5.466,19
2021	6.827,02
2023	16.730,00
2024	5.740,00
Guztira	147.047,98



Ikuskaritza izan ditzaketen ekitaldiak azken lau ekitaldiei dagozkie. Zergen aitorpenak ezin dira behin betikotzat hartu, harik eta zerga-agintaritzak agintzen edo onartzen dituen arte, eta zerga-legedia interpretatzeko gai dela kontuan hartu gabe. Administrazioaren ustez, ikuskaritza baten ondorioz nabarmen daitekeen beste edozein zerga-pasibo gehigarrik ez du ondorio adierazgarririk edukiko urteko kontuetan, horiek oro har hartuta.

10. OHARRA.- SARRERAK ETA GASTUAK.-

10.1.- Ustiapenerako beste Diru sarrerak

Ustiapenerako beste Diru sarrerak kontuaren xehetasuna honako hau da:

	2024ek.	2023ek.
Ustiapenerako bestelako diru sarrerak	9.787.080,28	8.833.099,02
Diru laguntzak (OHARRA 11.2)	6.911.368,54	6.020.604,87
Babesleak eta kolaboratzaileak	2.464.033,76	2.399.600,33
Hainbat diru sarrera	411.677,98	412.893,82

10.2.- Bestelako ustiapen gastuak

Bestelako ustiapen gastuen xehetasunak honako hauek dira:

	2024ek.	2023ek.
Bestelako ustiapen gastuak	5.705.212,57	5.009.164,13
a) Kanpoko zerbitzuak	5.692.117,00	4.997.565,21
b) Zergak	13.095,57	11.598,92
Beste emaitzak	11.190,00	23.574,24

Enpresaren ohiko jardueratik kanpo sortutako emaitzak, "Beste emaitzak" partidan sartuta daude, eta lehenagoko hainbat ekitalditan aldizkatutako gastuei dagozkie, baina behin betikoa da faktura horiek ez direla jaso.



11. OHARRA.- DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK.-

11.1.- Kapital diru-laguntzak

2024an jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuen mugimendua honako hau da:

	2024ek.	2023ek.
SALDOA EKITALDIAREN HASIERAN	-	5.720,62
(-) Ekitaldiko emaitzetara intsuldatutako diru-laguntzak	-	(5.001,58)
(+/-) Pasibora denbora diferentziagatik eramandako abonua	-	1.200,38
Erreklasifikazioa epe motzera	-	(1.919,42)
SALDOA EKITALDIAREN BUKAERAN	-	-

11.2.- Galera eta irabazien kontuan egotzitako Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Galera eta irabazien kontuan egotzitako Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuen kopuruak honako taula honetan zehazten dira:

	2024ek.	2023ek.
Donostiako Udala	1.323.100,00	1.323.100,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	1.405.464,00	1.405.464,00
Eusko Jaurlaritzak Kultura eta Industria	1.385.000,00	1.321.000,00
I.C.A.A.	1.522.100,00	1.122.100,00
Beste ditut laguntzak	1.275.704,54	848.940,87
Guztira	6.911.368,54	6.020.604,87

Donostiako Udalak, bere urteko ekarpena mantendu du eta Perlak ataleko Publikoaren Sariaren babesle izaten jarraitu du, eta haren zenbatekoa 96.800 eurokoa izan da (BEZa barne). Lankidetzak hori Babesak eta lankidetzak epigrafean sartzen da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, urteko ekarpena mantendu du Sustapen ekonomiko eta Proiektu Estretagikoen sailatik bideratuta eta 5.000,00 euroko diru laguntza gehiagarri bat egin du Nazioarteko Kooperaziorako, hau, 40.000,00 izanda eta Beste diru laguntza atalaren barne dago.

Eusko Jaurlaritzak Zinemaldiari babesa ematen dio, bai Kultura Sailatik, bai Industria Sailatik. Eta aurreko urtearekin aldearatu 64.000,00 eurotan igo da. Gainera, Turismo Sailatik 50.000,00 euroko diru-laguntza ematen du beste diru laguntza atalean islatzen dena eta gainera Ikusmira Berriak 2023-2024 proiektuarekin lotuta beste diru laguntza bat eman du, non bere sortzapena 150.000,00 eurokoa izan da 2024ean.



ICAAk 400.000,00 euro handitu du bere ekarpena, eta, horrez gain, 700.000,00 euroko lankidetzaz hitzarmena sinatu da Espainiako zinemaren inbertitzaileen eta nazioartekotzearen topaketa antolatzeke Asian eta Latinoamerikan. Azken laguntza hau, Beste dirulaguntza batzuk epigrafean jasotzen dira eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatuak izan dira.

12. OHARRA.- ERAGIKETAK LOTURA DUTEN ALDERDIEKIN.-

Sozietateko **goi-zuzendaritzako langileek** jasotako zenbatekoak honako hauek dira:

	2024ek.	2023ek.
1. Soldatak	96.876,86	95.850,83
2. Dietak joan-etorriengatik, kilometroak eta bizitza aseguruak	6.944,44	8.163,10
GUZTIRA	103.821,30	104.013,93

Administrazio Kontseiluko kideek ez dute ordainsaririk jasotzen eta, egungo zein iraganeko administrazio organoko kideei dagokienez, Sozietateak ez du pentsioak ordaintzeko inolako betebeharririk bereganatu. Krediturik zein horien aurrerapenik ere ez zaie eman. 2024an, zazpi gizonek eta bederatzi emakumek osatu dute

Administrazio Kontseiluko kideek ez dute elkarrekin izan lezaketen gatazka egoeren berririk eman, ez zuzeneko, ez zeharkako, Kapital Sozietateen Legearen 229.3 artikulua ezartzen duen moduan.

Sozietateak 2024 urtean zehar ez du inolako eragiketarik egin lotura duten alderdiekin.

Bazkideengandik jaso dituen dirulaguntza eta ekarpen bakarrak 11.2 oharrean adierazten dira.

2024ko abenduaren 31n, bazkideetatik jasotako guztizko dirulaguntzak 2024rako 215.000,00 euro zeuden kobratzeke. 2023ko urte amaieran diru laguntzak eta ekarpenen artean, 262.500,00 euro zeuden kobratzeke.

**13. OHARRA.- BESTELAKO INFORMAZIOA.-**

Ekitaldi honetan lanean jardun duen batez besteko langile kopurua, lanbide-kategorien arabera banatua, honako hau izan da:

Kategoria profesionala	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	2024ek.	2023ek.	2024ek.	2023ek.	2024ek.	2023ek.
Zuzendari nagusiak eta presidente exekutiboak	1,00	1,00	1,00	1,00	-	-
Gainerako zuzendariak eta kudeatzaileak	3,98	4,00	-	-	3,98	4,00
Kontabilitateko, administrazioko eta Bulegoetako bestelako enplegatuak	52,96	52,87	13,26	12,82	39,70	40,05
GUZTIRA	57,94	57,87	14,26	13,82	43,68	44,05

14. OHARRA.- ABALAK.-

Sozietateak 128.802,93 euroko abal-lerro bat du KUTXABANKekin; alegia, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari itzulita dagoen maileguarekin lotuta. Abal lerro hau, 2025 urtarrilaren 28an kantzelatu da Industria, Turismo eta Merkataritza Ministeriotik jakinarazpen ofiziala jaso ondoren.

15. OHARRA.- BEROTEGI EFektuAREN GASEN EMANALDIEN BAIMENARI BURUZKO INFORMAZIOA.-

Sozietatea ez da berotegi efektuko gasak isurtzeko eskubideen titularra eta ez du horien gaineko kontrolik

16. OHARRA.- ATZERATZEARI BURUZKO INFORMAZIOA HARTZEKODUNEI EGINDAKO ORDAINKETAK. *Bigarren azken xedapen. Abenduaren 3ko 31/2014 Legearen "informatzeko obligazioa".2016ko Urtarrilaren 29ko ebazpena.*

Merkataritza-eragiketengatik hornitzaileei egindako ordainketa atzerapenei buruzko informazioa jarraian dago:

	2024ek.	2023ek.
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	28,00	26,00













SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Donostian, **2025ko martxoaren 20ean**, agiri hau izenpetzen dutenek, **FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, E.A.ren** sozietatearen Administrazio Kontseilua osatzen dutenek, 2024ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak formulatzen dute.

En Donostia-San Sebastián, a **20 de marzo de 2025**, los abajo firmantes, que componen la totalidad de los miembros del Consejo de Administración de **FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, S.A.**, formulan las Cuentas Anuales correspondiente al ejercicio anual 2024.

 Fdo./Sin.: GOIA LASO, Eneko	 Fdo./Sin.: OTAMENDI MUNAGORRI, Jaime
 Fdo./Sin.: INSAUSTI MAISTERRENA, Jon	 Fdo./Sin.: OYARBIDE OCHOA, Ane
 Fdo./Sin.: MENDOZA LARRAÑAGA, Eider	 Fdo./Sin.: ALVAREZ IRIJOA, Goizane
 Fdo./Sin.: BERSALUZE LAZKANO, Irune	 Fdo./Sin.: PRESA LASTRA, Fco. Javier
 Fdo./Sin.: BENGOTXEA, Ibone	 Fdo./Sin.: ITURBE AMOREBIETA, Andoni
 Fdo./Sin.: LARRAZA AIZPURUA, Irene	Fdo./Sin.: ONDARZABAL IZAGUIRRE, Ainhoa (no firma por imposibilidad)
 Fdo./Sin.: CAMÓS VICTORIA, Ignasi	 Fdo./Sin.: VÁZQUEZ BELLO, Camilo
 Fdo./Sin.: JUANES DE TOLEDO, Rocío	 Fdo./Sin.: AYUCAR CASTRO, Jara

AUDITORES

INSTITUTO DE CENSORES JURADOS
DE CUENTAS DE ESPAÑA

SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.

R.O.A.C. nº S2240


SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

reitb

M+



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



rtve